


# Herri Aldizkaria **Otamotz**



**Antxiñe Mendizabal:**  
"Gertakizun historiko bati  
buruzko erreportaia da  
liburua"



●  
Urretxu eta  
Zumarragako  
Arantxak  
Arantzazun

●  
Pablo  
Antoñana  
Zumarragará  
etorriko da

●  
Juan Mari  
Mujika, *Musti*  
*Mujika*, berriro  
Urolan

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel: 725775 **Koordinatzailea:** Amaia Pildain. **Erredakzio kontseilua:** Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Mari Paz Etxeberria, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Anakris Zabala. **Kazetariak:** Jone Aldalur, Jon Balenziaga, Mari Paz Etxeberria, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Andoni Salameo, Marian Toledo, Anakris Zabala, Asier Zaldúa. **Publizitatea:** Jon Balenziaga eta Idoia Luzuriaga. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Maketazioa:** Amaia Pildain. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Kolaboratzaileak:** Bertso eskola, Asier Otamendi, Hits & Fits Banda, Iñaki Bastarrika. **Inprimategia:** Iparragirre inprimategia, Urretxu. **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**1.500 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## AURKIBIDEA

## TELEFONOAK

- 3 **Bota puntua**  
Asier Otamendi Araba-Bizkaia bertso txapelketako semifinallean  
**Iritziz iritzi**  
Urretxu parke jurasiko bilakatu da
- 4-5 **Labur esanda**
- 6 Urretxu eta Zumarragako Arantxak Arantzazun
- 7-9 **Antxiñe Mendizabal Aranbururi elkarrizketa**  
*II. Errepublika Urretxu eta Zumarragan liburua argitaratu du*



- 10 Udal artxiboetako informazioa denon eskura dago
- 11 Pablo Antoñana idazle nafarra Zumarragan izango da
- 12 **Zenbat buru hainbat aburu**  
Zer iritzi duzu Lanbide Eskolari buruz?
- Zertan ari da**  
Patxi Iraeta TXISKOLAN ari da gidoilari eta artista moduan
- 13 **Izerdi patsetan**  
Juan Mari Mujika, *Musti Mujika*, berriro ere Urolan
- 14 **Ba al zenekien?**  
Jose Luis Padron *Imagina ezazu Euskadi* lehiaketan saritua
- 15 **Zorionak**

### UDALAK:

Urretxuko udala:.....720151  
Udaltzaingoa:.....722597  
Zumarragako udala:.....723011  
Udaltzaingoa:.....721562

### LARRIALDIAK:

Anbulategia:.....724900  
Ospitalea:.....723913  
Gurutze Gorria:.....725364  
Ertzaintza:.....724050

### KULTURA:

Kultur Etxea:.....724170

### KIROLAK:

Aldiri polikiroldegia:....720780  
Ispila polikiroldegia:....724961  
Beloki pilotalekua:.....720293  
Ederrena pilotalekua:..724662

### HEZKUNTZA:

Gainzuri ikastetxea:....721214  
Garaialde lizeoa:.....722112  
Ikastola:.....720026  
Institutua:.....721413  
Lanbide eskola:.....725477  
Legazpi eskolak:.....721514  
Zelai Aristi ikastetxea:..721354  
Musika eskola:.....725226

### EUSKARA:

Bisasti euskaltegia:.....720458  
Udal euskaltegia:.....723310

### KOMUNIKABIDEAK:

Eusko Trenbideak:.....150746  
PESA:.....761646  
Taxiak:.....720307  
RENFE:.....721515

\*Aurreko alean eta **OTAMOTZ**eko arduradunen oker baten ondorioz, ez genuen **Zelai Aristi ikastetxearen** telefono zenbakiaren berri eman. Borondate txarrik gabe egindako hutsegitea izan zela argitu eta barkamenak eskatu nahi dizkiegu, **Zelai Aristi ikastetxe**ko arduradunei.

## Zorionak Asier

Asier Otamendi urretxuarrak Gatikako pilotalekuan Araba Bizkaiko bertsolari txapelketako lehen kanporaketa irabazi zuen hilaren 26an.

Garaipen honekin semifinalerako txartela lortu du urretxuarrak. Zorionak Otamotzeko lagunaren partetik eta animo!!! ea txapela gipuzkoara ekartzen duzun.


Kontura, gura, itxura eta ardura oinak emanda, Asierrek kanporaketan kantatutako bertsoa da hurrengoa

*Belgikan zer pasa dan  
zaitezte kontura  
bederistak umetxo  
sexu dute gura  
oso lerdena baita  
daukaten itxura  
hemen gerta ez dadin  
hartzagun ardura*



ASIER OTAMENDI

## Urretxu, parke jurasiko bihurtu da



Urretxun, eta hamar urte beteko dituen museoak bultzatuta, harri, fosil eta harribitxiak ezagutarazteko asmoa duen **Mineralogia eta Paleontologiari buruzko IX. astea** ospatzen ari da. Aste honi esker, Urretxu urtean behin, munduko bazter desberdinetatik, Estatu Batuetatik, Mexikotik... etorritako makina bat zaletuen topagunea izaten da.

Gure aurtengo helburua, asteak gero eta maila hobea eta gero eta ikusle kopuru handiagoa duela ikusirik, kalitate eta eskaintza aldetik hobetzea izan da.

Herrian barrena prestatu den ibilbidean eta lau egunez, ikasleentzako bereziki prestatutako mineralak, fosilak eta harribitxieiei buruzko maletin didaktikoa eta Gasteizko portuari buruzko monografikoa izango dira ikusgai museoan. Liburutegi berrian, gure arbasoen buruhezurren erreproduzioak edota aurrehistoria garaiko gizakiak ikusteko parada izango da. Iparragirre plazan, berriz, unibertsioan barrena bidaiatzeko parada eskainiko duen planetariuma izango da. Honetaz gain, Ederrena pilotalekua inguruan, meategi lanetan aritu eta urre bila ibiltzeko aukera ezin hobea ere, eskainiko da.

Ederrenan bertan, Euskal Hermitik eta Estatuko hainbat herritatik etorritako adituek bai kopuru aldetik

eta baita kalitate aldetik ere, hobetzea oso zaila den 100 metro linealeko erakusketa prestatu dute. Erakusketarekin batera, Jose Mari Iparragirre institutoko ordezkariak frontoian bildutako haur eta gaztetxoek jokuak suspertzen ariuko dira.

Bukatzeke, aurtengo ekintzarik aipagarriena azaldu nahi dut. Azaroaren 17ra arte Labeaga eskoletan ikusgai egongo den **dinosaurioen erakusketa**, hain zuzen ere. Bertan, antxinako zenbait animalia bere benetako neurrian ikusi ahal izango dira. Animalia hauen artean, luzeran 7 metro pasatxo eta altuera 3,5 metro duen dinosaurioa, 2,85 metroko tiburoi ahoa edota duela ehun milioi urteko zuhaitzen artean topa daiteken dinosaurio arraultza azpimarratuko nuke.

Dinosaurioen erakusketa honen eta planetariumaren sarrera ezik, gainontzeko ekintza guztiak doanekoak direla ere argitu nahiko nuke.

Hau guztia irakurri ondoren, Urretxu egun hauetan parke jurasiokoan bilakatu zaigula esateko moduan gaudela uste dut.

Ondo pasa antolatutako ekintzetan.

**Fco. Javier Aguado Goñi**

Mineralogia eta Paleontologiari  
buruzko IX. astearen antolatzailea

Aldizkari honek Urretxu eta Zumarragako udalen laguntza eta Foru Aldundiko laguntza jaso du



URRETXUKO  
UDALA



ZUMARRAGAKO  
UDALA



Gipuzkoako Foru  
Aldundia



**Urola Garaiko udal elkarteko gida**

Urola Garaiko Mankomunitateak, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako herrietako ondare kulturala, artistikoa, turistikoa eta industrialari buruzko informazioa jasotzen duen gida kaleratu du. Gida hau Urola Garaiko herritarrei eta gure herrien berri izan nahi duten kanpotarrei dago zuzendua.



**Aldiri K.E.aren mikologia asteburua**

Jende asko bildu zen hilaren 18tik 20ra bitartean, **Aldiri Kultur Elkarteak** antolatutako VIII mikologia asteburuan egindako hitzaldi, mendi irteera eta batez ere, perretxikoen sailkapenera, erakusketara eta dastaketara.



**Krosa Urretxu eta Zumarragan**

**Antonio Merino** antzuolarak irabazi zuen **Urola Garaiko Atletismo** taldeak antolatutako lasterketa. Legazpitik irten eta Urretxu eta Zumarragatik barrena korrika aritu ziren, krosean parte hartu zuten 200 lagunak.



**Gurutze Gorria bolondres bila**

Urola Garaiko **Gurutze Gorriak** adinduekin lan egiteko beste bolondres talde bat sortzeko asmoa du eta horretarako ikastaro bat emango du.

**Gurutze Gorriak** gizon eta emakume adinduei eskaintzen dien laguntza eta zerbitzua osatu nahi du egitasmo berri honekin. Bakarrik bizi diren aitona-amonei bisita egin, beraiekin kalera irten edota erakundeetan daudenek antolatzen dituzten ekintzetan laguntzea litzateke bolondresen eginbeharra. Ikastaroan parte hartzeko interesa duenak, **72 53 64** telefono zenbakira dei dezake.

**TXINDOKI**  
TABERNA

**Txopitoetan berezitasuna**

Secundino Esnaola, 18 ZUMARRAGA

**Lanbrua**

- estetika  
- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA

**BAPRI**

Animalidenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13



Urola Garaiko Lanbide Eskolaren inaugurazioa


10 urtez bideraketa lanetan aritu ondoren, hilaren 23an inauguratu zen orain arte San Jose ikastetxearen egoitza zegoen toki berean, **Urola Garaiko Lanbide Eskola**. Ikastetxe berriaren sorrerarekin oso pozik azaldu zen Iñaxio Oliveri. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko kontseilariak, esan zuenez, "horren industria tradizio handia izan duen bailarak, aspalditik zuen beharra betetzeko lehen pausoa da lanbide eskolaren inaugurazioa. Hemendik aurrera ikastetxeak, inguruko industrietako beharrei erantzuna eman eta konpetibitate mailan lehiatu ahal izateko irakaskuntza egokia eskaini beharko du." Aldi berean, Oliverik, enpresariei langileentzako ikastaroak

antolatzen ardura gehiago hartzea gustatuko litzaiokeela adierazi zuen, eta hori bultzatzeko neurri legalak hartuko direla ere gehitu zuen.

Bestalde, patronatoaren lehendakariak, Juan Ramon Larrañagak, Oliverik esandakoarekin bat zetorrela esan eta ikastetzeko arduradunen oraingo erronkak ekipamendua egokitzea eta ahalik eta azkarren ikastetxea euskalduntzea direla adierazi zuen.

Miguel Angel Gomez eta Santi Perez omenduak

Urretxuko udalak, **Miguel Angel Gomez**, Atlantako olinpiadetan, boccia kirolean urrezko domina irabazi zuen Estatuko taldeko partaidea, eta **Santi Perez**, Atlantan izan zen Diego Garcia korrikalariaren entrenatzailea, omendu zituen hilaren 20an. Udalak, herriko kirol taldeek eta lagunek eskainitako opariak udaletxean jaso ondoren, Aldiri kiroldegian, Goierni K.E.ko eta Dordoka elkarteko futbol taldeen arteko partidua jokatu zen. Miguel Angel Gomez eta Juanjo Odriozola herritarak boccia kirolean jokatzen ikusteko aukera ere izan zen. Argazkian, Lurra dantza taldeko dantzari bat aureskua dantzatzen bi olinpikoei.



**KORTABERRIA**

**TABERNA**

**Pintxoak, Bokatak, Afariak**

Kalebarren 26an gaude  
ZUMARRAGA Tfnoa:72 04 67

**ALDCKI**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Plano erreprodukzioak  
Laser koloreko fotokopiak  
Fax zerbitzua  
Kamiseten inprimiketa  
Plastifikazioak  
Kolorezko inprimagailu zerbitzua (720pp)

**IPIÑARRIETA kalea, 2, etxeazpia Tel.-faxes 724220**  
**20700 URRETXU - GIPUZKOA**

# Urretxu eta Zumarragako 37 Arantxa, Arantzazun

*Urretxun 75 eta Zumarragan 98 Arantxa, Arantza edo Arantzazu daude*

**H**ilaren 19an Arantxa izeneko adin guztietako 2.000 lagun bildu ziren Arantzazun, Joxe Agustin Elustondo frantziskotarrak izandako ideiarri erantzunez. Honela duela 40 urte, 1956. urtean, Santutegira Arantza, Arantxa eta Arantzazu izenekoek egindako erromesaldia berri nahi zen. Joxe Agustin Elustondok, nork bidali zion jakin gabe, Euskal Herriko 15.000 Arantxen izen abizenak biltzen dituen zerrenda jaso zuen Arantzazun. Adiskidetasunean oinarritu den eguna antolatzeko zerrenda, hau erabili da 15.000 Arantxei erromesaldiaren berri emanez gutun bat bidaltzeko. Prestaketa lanetan aritutakoak gustura daude, Santutegian bildutako Arantza kopuruarekin. Arantzen %10a, bildu omen zen bertan, Euskal Herriko txoko guztietatik eta Bartzelona eta Madriletik joandako 2.000 lagun guztira. Oñatitik Arantzazura bitarteko ibilaldiarekin eman zitzaion hasiera erromesaldiari, Arantzazun guztiak eskutik helduta, *Amigos para siempre* kantatu zuten. Elkarrizketatuen esanetan, hauxe eta meza garaian izenarekin gustura zeudela esan ondoren, jaso zuten bedeinkapena



Arantxa Peinadok utzitako argazkia

✓ Arantzazun bildutako Urretxu eta Zumarragako Arantxak.

izan omen ziren eguneko momenturik hunkigarrienak. Bazkal ondoren Arantxa gazteenak eta zaharrenak jasotako sariak ez ezik, bertan bildutakoen artean opariak zozketatu ziren. Dantzan egin ondoren, arratsaldeko bostak aldera, abiatu ziren 40 autobusetan eta 100 kotxeetan Euskal Herriko bazter

guztietako Arantxak beraien herrietara. Urretxu eta Zumarragako 37 Arantza bildu ziren bertan, eta oso egun polita pasatu zutela esan digute gurekin izandako guztiek, horrelako egun bat errepikatzeko gogoarekin etori omen ziren etxera. Elustondoren esanetan, Zumarragan 98 Arantxa eta Urretxun 75 daude.



**Arantxa Berriotxo**

Oso ondo ibili ginen. *Amigos para siempre* kantua abestu genuenean edota mezatan, Arantxa izenarekin gustura geundela esan eta gero jaso genuen bedeinkapena izan ziren eguneko unerik hunkigarrienak. Errepikatzeko modukoa da, baina urtero egin beharrean gutxienez bost urtetik behin egitea egokiago iruditzen zait. Antolakuntza sekulakoa izan zen. Urtean behin Arantzazura joan behar izaten dut. Oso gustura nago dudana izenarekin.



**Arantxa Pozueta**

Oso oso ederki ibili ginen, oso egun polita pasatu genuen, giro onean. Antolakuntza ezin hobea izan zen eta dena oso ongi irten zen. Errepikatzeko moduko eguna da, baina ez dut uste urtero egin behariko zenik, bost urtean behin egitearekin nahikoa dela pentsatzen dut. Gustokoa dut dudana izena.

## EDURNE

*Punta puntako moda*

*Aukerarik hoberena  
gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 ☎ 72 14 17 ZUMARRAGA



Labeaga, 35 Tfnoa: 71 41 60 20700 - URRETXU

## ELIZ - KALE


**L** AUTOESKOLA

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 52

# Antxiñe Mendizabal: "Hausnarketa lana da liburua, garaiko herria ezagutzeko modua"

*Oraindik ere, gerra garaiko oroitzapenen beldur dira orduko herritarrak*

**A**ntxiñe Mendizabal kazetariak, "II. Errepublika Urretxu eta Zumarragan" liburua argitaratu berri du. Antxiñek txikitatik izan du garai horrekiko jakinmin berezia, eta hasieran kuriositate pertsonala zena, liburu batean bilakatu da, bi urteko lan gogorraren ondoren. II. Errepublikaren aldarrikapena, honen bilakaera eta Gerra Zibila garaiko Euskal Herriko gertaera nagusietatik abiatu eta Urretxu eta Zumarragan bizi izandako gertakizunetan zentratzen da liburua. Udal artxibategietako dokumentuak, lekukoen testigantzak eta herrietan bizi izan den giro eta egoera ezagutzeko oso adierazgarriak diren herriko kronikak erabili ditu lana osatzeko. Liburua, hausnarketa lana dela esan digu, garai hartako bizimodua ulertzeko tresna eta herria ezagutzeko modua. Liburua osotara irakurtzen duenak, urte haietako herria eta herritarrak nolakoak ziren imajinatzea da egileak lortu nahi izan duena. Informazio bila aritu den bi urte hauetan, oraindik ere gerra garaiko oroitzapenak gogoratzeko beldurra dagoela sumatu du Antxiñek, eta liburuaren argitalpenak garai hori hein batean desmitifikatzen laguntzeak poztuko luke. Lagundu dioten guztientzako ditu eskerroneko hitzak, baina batez ere Juan Jose Arozena aipatzen du, liburuaren azken atala, Gerra Zibilean hildako urretxuar eta zumarragarrei eskainia berak egin baitu oso osorik.



Udal artxibategiak, Donostiako hemeroteca eta herritarren testigantzak izan dira Antxiñeren informazio iturri nagusiak

**Kazetari izanda nola bururatu zaizu gertakizun historikoei buruzko liburua idaztea?**

Beti izan dut garai honekiko jakinmin berezia. Hasieran kuriositatea besterik ez zen, oso gauza pertsonala. Nire etxeok garai hartan ezagutu nahi nituen. Duela 7 urte inguru gaiari buruzko lan bat egiteko aukera sortu zitzaidan eta bi udaletako

artxibategiak arakatzeko hasi nintzenean, liburu bat idazteko adinako materiala zegoela konturatu nintzen.

Orain bi urte Hits & Fits Bandak eskatuta, II Errepublikari buruzko hitzaldia eman nuen. Bertan, 60 urte hauetan Gerra Zibilean hildakoen zerrenda osatzeko kezka buruan bueltaka izan duen Juan Jose Arozena ezagutu nuen. Juan Josek ikerketarako

zuen gogo aprobeztatu eta bi gogo batu ziren. Horren emaitza izan da liburua.

**Hitzaurrean, hausnarketa tresna bezala definitzen duzu liburua.**

Historian jasotako datu objektiboak ezgutera ematen badira ere, elementu subjektibo askok osatzen dute liburua. Zenbat eta elementu subjektibo gehiago

eduki, orduan eta osogoa izango zela iruditzen zitzaidan: garaiko egoera ezagutzeko oso adierazgarriak diren egunkarietako herriko kronikak esate baterako. Gertaera guztiak egi biribilak bailiran idatziko banitu, egi bezala pasako lirarteke historiara. Nik herriko kroniken bidez garaiko bi edo hiru pentsakera ezberdin azaldu nahi izan ditut, nahasmenean norberak

**A**

Secundino Esnaola, 5  
☎ 72 42 07  
ZUMARRAGA

deportes  
**APALATEGUI**

Zabaleta, 3  
☎ 28 77 87  
DONOSTIA

**Darmanki**

**Edergintza**

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



✓ Gerran hil zireni omenaldia da liburuaren azken atala

✓ Antxiñe Mendizabal, liburuan ezagutzera ematen den Ezkioko Amabirjina agertu zeneko tokian

bere ondorioak atera ahal izateko. Historiako liburua baino, gertakizun historiko bati buruzko erreportaia da lan hau.

**Zein da liburuaren helburua?**

Azken finean, liburua osotara irakurtzen duenak, urte haietan herria eta herritarrak nolakoak ziren imajinatzea da helburua.

Heria ezagutzeko modu bat da, garai hartako gertaerak ulertzeko erreferentzia puntua.

**Garaia bizi izan zuteneko herritar asko izan dira zure informazio iturriak, zer moduzko jarrera izan du jendeak?**

Lanerako interesatzen zitzaidan jendearengana bakarrik joan naiz. Alderdi guztietako testigantzak

jasotzen saiatu banaiz ere, ez dut lortu. Arazoa ez da jendea laguntzeko prest ez dagoela. Jende askok ez du garai haiek gogoratzeko gogorik. Oraindik ere, beldura dago, garai hura bizi zuen jendea markatuta dago, eta gertatutakoak gogoratzea, ondorioak ekarriko dizkiela pentsatzen dute. Bestalde, liburua argitaratua ikusteak, askoren beldurak zertxobait uxatze-

ko balio izan duela uste dut.

**Liburuan herritar batzuei buruz esaten diren gauza asko, beharbada mingarri izan daitezke haien senitartekoentzat.**

Izen asko azalduko zirela banekien, eta aitortu beharrean nago, neure kezka izan ditudala. Hala ere, garaia ezagutzera emateko beharrezkoa zen kargu publikoak izandako pertsonen berri emtea, kargu publikoa izanik herriko bilakaeran protagonismoa izan zutelako. Hala ere, argitu nahi nuke liburua ez dagoela inondik ere borondate txarrekin edota inor kritikatzeko asmoz eginda. Inor ez da bere senitartekoen ekintzen erantzule. Beste garai bat zela eta beste pertsona batzuk zirela ulertu beharra dago. Nahiz eta ulergarria denez garai biktimitate beren borrokoen aurpegiak ez dakiten ahazten.

**Hauxe da beharbada, orduko gertaerak lekukoan ahotik jasotzeko momentua, urte batzuetara ezingo baita horrelakorik egin.**

1931-1939 urteak oso garrantzitsuak izan ziren, sekulako mugimendu politiko eta soziala egon zelako. Geroztik, frankismoaren amaieran izan ezik, gaur arte ez da horrenbesteko mugimendurik izan alderdi politiko eta sindikatuei dagokienez behintzat. Garai hartako testigantzak lekukoan ahotik jasotzeko garaia hauxe da. Urte gutxira dokumentuetara jo beharko da, eta beraz, une hau aprobetxatu beharra dago.

Urdaneta, 7 behea  
Tel: 72 37 09  
20700 ZUMARRAGA



Plazaola, 1  
Tel: 73 16 42  
20230 LEGAZPI

INGELESA ● FRANTSESA ● ALEMANA ● EUSKARA



-n hizkuntza guztiak ikasi ahal izango dituzu munduan zehar arazorik gabe ibili ahal izateko

**MASTER** - Hezkor  
CADENA


Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31  
20700 ZUMARRAGA



## Juan Jose Arozena: "Gerra Zibilean hildako herritarrak omendu nahi izan ditut lan honekin"



*Zerk bultzatu zaitu Gerra Zibilean hildako herritarrei buruzko ikerketa egitera?*

Azken 60 urte hauetan etengabe buruan bueltaka izan dudana kezka zen, zama bat, asko arduratzen ninduen Gerra Zibilean hildakoek herritarren oroitzapenik ez izatea. Herrian ez zitzairen sekula omenaldirik egin, Zumarragako Udalak 13 lagunengatik zerrenda jasoa zuten, eta Urretxun ez da inoiz haien aldeko ezer egin. Zumarragan jasotako 13 hildakoak ez ziren inondik ere garaiko Urretxu eta Zumarragako egoeraren adierazgarri. Erabat ahaztuta zeuden hildako gehiago izan zen bi herrietan. Hildakoek herritarren oroitzapena merezi zutelako pentsatuz, omenaldi gisa eta gogo handiz egin dudana lana da.

*Zenbat hildako izan ziren gure herrietan?*

Danera 75 laguneko zerrenda

osatu dut. Hildako guztien izen abizenak bakoitzaren biografia eta heriotzaren nondik-norakoak azaltzeko gain, 42 lagunengatik argazkiak lortu ditut. Oraindik ez dut zerrenda bukatu. Garai hartan familia askok utzi behar izan zuten herria eta hauen inguruko informazioa jasotzea oso nekeza da. Hala ere, lanean jarraituko dut.

*Non lortu duzu informazioa?*

Hasiera batean, nik gogoan nituen izenekin, zerrenda osatu nuen, ni baino nagusiagoei galdetuz hasierako zerrenda osatu nuen. Azkenik, Urretxu eta Zumarragako udal artxibategietan, hildakoen izen abizenak eta helbidea aurkitu ditut artxibarien laguntzarekin. Bakoitzaren biografia osatu eta argazkiak lortzeko, senitartekoekin hitz egin dut.

*Gerra garaian ume zinen, nola dituzu gogoan horrenbeste kontu?*

Gertaera historiko hura mende

honetako gertakizunik zorritzarrenekoena izan da, eta hori kontutan hartzen da. Errepublikaren aldarrikapenarekin eta Gerra Zibila piztu zenean batez ere, herriko bizimoduak erabat aldatu zen, ohizkoak ez ziren gertaera eta iskanbila asko ikusi nituen eta hori ez da hain erraz ahazten.

*Gustura al zaude egindako lanarekin?*

Argitaratutako lana zertxobait zuzenduko nuke. 42 argazki lortu ditut eta zerrendan aipatzen ditudan 75 lagunengatik argazkiak lortzerik izango banu, poztuko nintzateke. Nahi izanez gero, ikertzen jarraitzeko material ugari dagoenez, artxiboak arakatzeko jarraituko dut.

**Juan Jose Arozenak asko lagundu omen dizu lan honetan.**

Juan Josek laguntza paregabea eskaini dit, eta ikaragarri eskertzen diot. Duela 60 urteko herria eta herritarrak ezagutarazi dizkit bisitan eramaten den laguna bezala. Berak bideratu nau zenbait informazio bilatzeko, halako informazioa zein etxetan topa nezakeen adierazi dit. Liburuaren azken atala,

Gerra Zibilean hildako herritarrei buruzkoa berea da osotasunean. Guztiok eskertu behar diogun lan handia egin du. Aldi berean, liburua osatzen lagundu didaten herritar guztien laguntza eskertu nahi nuke, eta baita bi udaletako artxibariak, Koldo Argandoña eta Antonio Pradak eskaini didatena.

**Itarte Etxean ikusgai egon den erakusketa oso**

**zaindua iruditu zaigu.**

Oso gustura gaude erakusketak piztu duen jakinminarekin. Sekula ez da bi herri hauetan horrenbesteko jendetza bildu duen erakusketarik egin. Egutero 100 lagun inguru bildu da bertara. Erakusketak iraun duen bitartean egutero inguratu den herritarrik ere izan da. Askok eta askok behin eta berriz joan dira erakusketa ikustera. Jendeak kritikak

egin ditu, zenbait datu zuzendu ditu eta falta zitzaigun informazioa eskaini digu. Oso positiboa izan da.

**Gustura beraz, idatzitako liburu eta antolatutako erakusketarekin.**

Oso gustora nago, hala ere, jende ugari liburua eta argazki bilduma jartzeko informazio gehiago eman didanez, liburua orain argitaratuko banu osoagoa izango litzateke.

ITURGINTZA




**LUIS ANGEL**

Gure erakusketan zain gauzkazu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxa: 72 54 59

LIBURUAREN



Labeaga, 52 Tel. eta Faxa: 72 50 45  
20700 URRETXU



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA


# Udal artxiboak, herriko historia ezagutzeko informazio iturririk aberatsenak

**U**rretxu eta Zumarragako artxiboak, Gipuzkoako gehientsuenak bezalaxe, 80. hamarkadan hasi ziren antolatzen, diputazioak, udal artxiboetako dokumentu historikoak antolatzeko martxan jarritako proiektu bati esker. Orduan hasi ziren lanean **Koldo Argandoña** eta **Antonio Prada**, Urretxu eta Zumarragako artxibariak. Koldok esan digunez hala ere, ordurako, Urretxun Jose Mari Iztueta, laguntzaile batzuekin batera antolaketa lanetan ibilia zen.

Dokumentu historikoak eta administratiboak aurki daitezke artxibotan, dokumentu historikoak Gerra Zibila bitartekoak dira eta bai Koldok eta baita Antoniok ere antolatuta dituzte aspalditxoan. Orain, dokumentu administratiboak, antolatu eta behar bezala sailkatzen dihardute. Sailkapena fitxetan egin da dute gehienbat eta azken urteetan informatizatzen ari dira, informatizazioak, dokumentuak modu errazagoan eta azkarrago bilatzeko modua eskaintzen baitu.

Dokumentuen datari dagokionez, Zumarragako artxiboko dokumenturik zaharrena, 1202. urtekoa da eta Donostiako gertaera bat jasotzen du. Zumarragari buruzko dokumenturik zaharrena, 1383. urtekoa da. Urretxuko

dokumenturik zaharrena, berriz, 1383an Juan I-ak emandako Hiri Gutuna da. Dokumentu hauek guztiak denon eskura dauden arren, informazio eskubidea eta intimitate eskubidea erabat betetzen dutela argitu nahi izan dute bi artxibariak eta horregatik edozein pertsonaren intimitatearen aurkako dokumentuak ez dituzte erakusten. XX. mendeko



dokumentuak dira ugariak, baina Urretxun XVI. mendeko informazio asko aurki daiteke.

Bestalde, herritarrok ez omen dugu artxiboa gehiegi erabiltzen, nahiz eta azken urteetan lehen baino jende

gehiago gerturatzen den informazio bila. Ikerlariak, ikasleak, jubilatuek, eroldaren eske, edota etxean konponketa lanen bat egiteko plano bila joaten direnak aipatzen dituzte eskatzaileen artean.

Biek nolabait ere kritikatu egiten dute artxibora gerturatzen diren eskatzaileek ikerketarako duten gogo falta. Informazio bila joan beharrean, informazio eske joaten omen da eskatzailea, eta dokumentuak ikertu eta paperetan arakatu ordez, informazio hori artxibariak momentuan eta eskura eman diezaien nahi izaten du.

## Urretxuko udal artxiboa:

**Kokapena:** Udaletzeko azken pisuan.

**Dokumentuak:** Historikoak eta administratiboak

**Ordutegia:** Goizez 8:00-13:00

**Arduraduna:** Koldo Argandoña, historialaria.

**Ikerketzaileak lanean aritzeko tokia du**

## Zumarragako udal artxiboa:

**Kokapena:** Udaletzeko azken pisuan.

**Dokumentuak:** Historikoak eta administratiboak

**Ordutegia:** Goizez 8:00-13:00

**Arduraduna:** Antonio Prada, historialaria.  
Historia Garaikidean doktorea.

**Ikerketzaileak lanean aritzeko tokia du**



**Mutua General de Seguros**

Iparagirre, 11-etxeazpia  
20700 URRETXU

© 72 25 99



**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23

Zerbait afaltzen ospatu nahi baduzu

**SASIETA  
JATETXEA**

EGUNEKO MENUAK • ASTEBURUKO MENUAK

Legazpi, 5 ZUMARRAGA

☎ 72 29 16



**KIROLO DENDA**

Gernikako Arbola plaza 5, behea A

URRETXU  
Tel: 72 59 71

# Pablo Antoñana, ongi etorri!


**P**ablo Antoñana idazle nafarra Zumarragara dator abenduan, bere bizitza eta lanari buruz hitz egitera. Idazle bikain hau, bikain bezain ezezagun, Nafarroako Biana herriak ikusi zuen jaiotzen 1927an, On Francisco Navarro Villoslada idazle integristaren jaiotetxean. Han jaio izanak, aitortzen du, eragingo zion idaz-zaletasunean. Magisteritza Logroñon ikasi ondoren, zuzenbide ikasketak egin zituen Zaragozan, eta gero idazkari izan da hogeita hamar urtetik gora Erriberako Desojo, Sansol eta El Busto herrietan. Literaturarekin lehendabiziko harremana 1948an izan zuen "Domingo" aldizkarian **El aguilucho herido** ipuina argitaratu zuenean. Geroztik oparoa izan da bere jarduna.

## Hona hemen bere lanak:

**El Capitán Cassou** ("Acento" saria, Madril, 1959, Nafar Gobernuak argitaratua, 1993), **No estamos solos Sebastián** "Sésamo" saria, 1961, argitaratua). **El tiempo no está con nosotros** ("Ciudad de San Sebastián" ipuin saria, 1961) **La cuerda rota** ("Nadal" saria, 1962, Pamiela, 1995), **El Sumario** (Plaza y James, 1964), **Pequeña Crónica** ("Ciudad de San Sebastián", 1973, Kurpil aldizkariak argitaratua 1975ean), **Joelle, mi amiga** ("Ciudad de Tudela" saria, 1976an). **Relato Cruento** ("Navarra-77" nobela laburren saria, 1977), **El Sumario** (Plaza y James, 1964, Pamiela, 1984) **Pequeña Crónica** ("Kurpil" aldizkaria, 1975, Pamiela, 1984 eta 1985 ipuin saria, 1961), **Bofín y fuego y otros relatos** (1985), **Patrañas y otros extravíos** (1985), **Memoria-Divagación-Periodismo** (1996), **Noticias de la segunda guerra carlista** (Nafarroako Gobernu, "Panorama" saila, 1990) eta **La vieja dama y otros desvaríos** (Nafarroako Gobernu, 1993). Esan dezagun ez dituela liburuak bakarrik idatzi, bestelako idazlan ugari eman duela argitara. Egunkarietan, esaterako, azpimarratzekoa da 1962-1977 bitartean Diario de Navarra-n idatzitako "Las tierras y los hombres" saila, jende ugari igandero-igandero arretaz leitzen zuena.

Lan batzuek urte luzeetan izan ditu argitaragabe, hobe esan, inork ez dio argitaratu nahi izan, oso berandu arte, "beranduegi" dio **Pablo Antoñanak**. Aurten Nafarroako Príncipe de Viana saria eman diote eta bestetik Eusko ikaskuntzak omenaldia eskaini dio Sorladan. Oso berandu bada ere, onetsi da bere lana. Hala ere, horrek ez du bere asmo ta ideietan zirkinik ere mugiarazi. Bere nortasun eta idatziak ez dira aldatu. Injustizia, zapalketa, behin eta berriro agertzen dira eta baita taldeko kainismoaren islada ere, gerra alegia: **"gorroto dudan gauza bakarra salatzen dut, gerra, mendez mende bukatzen den gerra"**, bereziki 1936koa. Eta horregatik galtzailea, azpiratua, beti ditu present.

Testuen kalitateak harritu egiten gaitu noski, eta gero mamiak, bizitzaren krudeltasunaren azalpenak, azalperietan ez ibiltzeak. Ezer zuritzen aritu gabe, odolari odol eta ogiari ogi esateak, poztu egiten gaitu, eta jarraiek ere bai noski, koherentzia personalak, deserrian, bakarrik, etengabe iraun, han eta hantxe segitzeko indar eta



✓ Pablo Antoñana, abenduan izango da Zumarragan

erabaki sendoak. Marjinetua bizi izan da urte luzeetan, alde batera utzi dute. Artaldetik kanpo ibili da beti "ardi beltza", ez artzaiari, ez artalde jabeari, ez txakurrari jarraituz. Bere bidean ibili da. Dogma guztien azpi eta gainetik, zalantza ardatz duela: **"Baiezkorik ez diot, ezezkorik ere ez, zalantza egiten dut, nire baieztapenik trinkoena: zalantza da."**

Underwood idazmakina zaharrean tiki-taka imajina dezakegu, txapela buruan duela, bizar luze eta bekain iletsuekin, bere lurrari gogor atxikia, erabat lotua. Hona Antoñanaren hitzak: **"Esan dezadan neuk asmatutako "herrialdean" bizi, elikatu eta adoretzen naizela, Ioar Errepublikan alegia; Nafarroako Erreinuarekin lezakeen zerikusia, harekiko menpekotasuna eta haren historiarekiko lotura dira. Gainontzean, neure "herrialdeko" historiak, maite-maiteak, lurtasunak, paisaiak, bertako gizonak egin naute eta haren produktu naiz ni. Harekin egiten dut bat, hantxe jaio naiz eta hantxe hil nahi dut. Nire lana, neure lurra eta ni neu, ziur nago, gauza bera gara"**. Halaxe da, lur usaina dute bere liburuetakoa orrialdeek, soroko izerdi usaina, laneko kiratsa, eta lureko emaitzak dira, lur-lurra.

**Hits & Fits Bandak** antolatuta, **Pablo Antoñana** gertutik ezagutzeko aukera ezin hobea daukagu orain, Legazpi Dorretxean eskainiko duen hitzaldian. Gonbidatuta zaude irakurle. Euskalerriko beste muturrean, lurrean erroturik ia 70 urte eman dituen idazle oparo hau ezagutzeko aukera ez da edonola galtzekoa. Eta ezagutzen hasteko, zer hobe **Pablo Antoñanaren "Textos y Pretextos"** liburu ederra irakurtzea baino? Bere bizitzan egin dizkioten elkarrizketarik interesgarrienak biltzen ditu liburuak, batzuk gazteleeraz, besteak euskaraz. Artikulu argi eta txukunak ere bai. Hau esatea besterik ez da geratzen: **Pablo Antoñana Chasco, ongi etorri Zumarraga-Urretxura.**

Ignatius (Hits & Fits Banda)

## Zein iritzi duzu Urola Garaiko Lanbide Eskolari buruz?



**Iñaxio Oliveri**

### Hezkuntza kontseilaria


Urola Garaiak aspaldian zuen beharra betetzen hasten da eskolarekin. Hemendik aurrera, ikastetxeak, industria eskaerei behar bezala erantzuten eta irakaskuntza maila konpetitiboan lortzen saiatu beharko du.



**Juan Ramon Larrañaga**

### Patronatoko Lehendakaria

Egitasmo honek ikaragarriko garrantzia du bailararen egiturarako. Urte askotan jende asko aritu da lanean hau lortzeko eta lortu denean, erronka berriak ditugu, ekipamendua egokitzea, egun, garrantzitsuena dena eta ahalik eta azkarren ikastetxe guztia euskalduntzea.



**Bixente Zumarraga**

### Goierriko ELA-ko ardurduna


Ikastetxeak eta lan munduak harreman hurbilak izan behar dituela uste dugu, hau baita lanbide eskolaren helburuetako bat. Hala izatea gustatuko litzaiguke, eskolak formazio aldetik ondo prestatutako langileria eskainiko ligukelako.



**Jesus Iturbe**

### Adegiko kidea eta enpresaria

Eskolaren eraketa oso garrantzitsu izan da. Lan handia eginda oso baliabide gutxiarekin eta hau pozteko modukoa da. Lan munduan konpetitiboak izango diren profesionalak sortzea da oraingo erronka.



## Patxi Iraeta

Telebista kamerei zien ikara gaintitzeko asmoz erabaki zuen TXISKOLARA lehiakide moduan joatea. Ordura arte apenas txisterik kontatu gabekoa zen, bere ustez sekula ez baitu prestatu gabeko txisteak kontatzeko graziarik izan. Oraindik ere ez omen du bapatekoan ikasi baina prestatutakoetan ez da ez nolana hiko, artista hutsa dela ederki asko frogatu digu.

TXISKOLAKO arduradunek, umore kontuan Euskal Herriko adituenetarikoa direnak ere aintzakotzat hartu dute Patxiren grazia eta txisteak kontatzeko era eta azarora arte gutxienez, hiru programatik behin TXISKOLAN gidoilari eta artista lanetan arituko da zumarragara. Bera da interpretatzen dituen sketchen gidoilari eta ez du batere lan erraza. Izan ere, umore kontuan ia guztia asmatuta dagoen garaian ikuslegoaren arreta eta barre algarara sortaraztea ez da lan samurra ez horixe!

Kamerei zien beldurra gaintitu eta kamera aurrean disfrutatzen hasita badago ere ikuslegoaren aurrean urduri azaltzen da beti, ofizio honetan sekulan ez baita jakiten norberak prestatutakoa ikuslegoaren gustukoa izango den ala ez.

Herritarak eta familia omen dira bere lanaren kalitatea neurtzeko termometrorik onenak. Telebistan ondo arituz gero kalean bi pauso jarraian eman ezinean izaten da. Etxean entzun behar izan ditu kritikarik gogorrenak, lan txukuna egin eta hala ere, beti sekulakoak entzun beharrean izaten da. Etxean oso ondo aritu dela entzutea, gaizki aritu denaren seinalerik nabarmena izaten da.

Umorista lana gustukoa du, oso pozgarria omen da jendea algarara batean jartzea, *jesukristoren mesedea egiten zaio horrela. Norberak ere poz handia hartzen du jendeak berarekin oso ondo pasatu duela esaten diorean. Udaltzain lanetan multaren bat serio serio isunen bat jartzen sumatzen dugunean gogorazi beharko diogu berak esandakoa.*

Patxik behin eta berriz esan digu berak ez duela umorerako berezko graziarik, ez duela txisteak kontatzeko balio, guztiok gure inguruan umore kontuan bera baino askoz ere hobekak diren asko ditugula. Berak duen dohain bakarra balio duen apurra erakusteko prest egotea omen da, lotsarik ez izatea omen da kontua, eta zoritxarrez euskaldunok garrantzia handiegia ematen omen diogu geure buruari. Bera baino hobekak asko izango diren arren, bera aukeratu dute TXISKOLAN aritzeko. Zergatik ote da, lotsagabea izateagatik soilik?

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*



*"Urola taldea ez dabil gaizki jokatzeko eta egoera txar hau gaindituko dugula uste dut"*

*"Jokalari atzerritarrek goi mailan konpetitzeko beharrezkoak direla ulertzen dut, baina aurten gehiegikeriak eman dira hainbat taldetan, Salamanca eta Deportivon adibidez"*

*"Hainbeste urte kanpoan ibili ondoren, herrian ez dut aldaketa handirik somatu"*

*"Liga irabazteko faboritoak, nire ustez, diru gehien gastatu dutenak dira, Barcelona eta Real Madrid. Hala ere, Valencia, Deportivo eta Betis ere gertu ibil daitezke"*

# Futbolaren ibiltari bat etxera bueltan

Juan Mari Mujika, *Musti Mujika*, urte mordo bat kanpoan pasatu ondoren bere lehen pausoak eman zituen futbol taldera itzuli da. Errealak, Deportivo, Alavés eta Andaluziako San Pedron jokatu eta gero berriz ere jantzi du Urola taldearen kamiseta horia.



taldera igo ninduen, konfidantza handia eman zidan eta berarekin oso harreman ona izan nuen.

**Zer diozu iaz Andaluzian izandako esperientziari buruz?**

Ez zen oso talde serioa, partiduak ikustera 200 jarraitzaile baino gehiago ez zen joaten eta gainera kobratzeko garaian arazoak izatengentuen. Hain ospetsua den Jesús Gil zen taldea mantentzearen arduraduna, baina ordaintzeko kontuak ahazten zitzaizkion. Hala ere, inguruko taldeetan jokatzeko zuten euskal jokalariekin bizi nintzen eta geure artean odo giro ona genuen.

**Hainbeste taldetik igaro ondoren pasadizo bereziren bat gogoratuko duzu.**

Coloniaren aurka jokatu genuen UEFAko kanporaketa batean 1-0 emaitzarekin irabazi genuen. Buelako partidua hasi aurretik taldeari kirol jantzia eskaintzen zion etxeak denetik eskaini zigun kanporaketa galduko genuelakoan. Guk, ordea, partidua irabazi egin genuen baina ez zen inor etorri aurretik eskainitakoa ematera.

**Nolatan hasi zara berriro Urolan jokatzeko?**

Kanpoan urte asko eman ondoren eta 33 urterekin, jada ez nuen 2.B mailan aritzeko ez aukerarik eta ezta gogo handirik ere. Honetaz gain, Andaluziako San Pedro taldeko planteaketa eta antolaketa oso serioa ez zela iruditu zitzaidan. Taldea utzi eta futboleant jokatu gabe hiru hilabete pasatu ondoren futboleant aritzeko irrika bizia sentitu dut eta gainera Urolakoek jokatzeko eskatu didatenez, homi gustura ekin diot.

**Hainbeste taldetan jokatu ondoren, non sentitu zara ondoen?**

Errealean eta Deportivon oso urte politak pasatu

nituen, nahiz eta bi talde hauen artean ezberdintasun handiak izan. Errealean igarotako urteetako oroitzapenik bereziena Zaragozan irabazi genuen kopa finala da. Deportivoko oroitzapenen artean, berriz, 2. mailan hasi eta lehenengo mailara igotzea lortu genueneko azpimarratuko nuke. Taldeari Superdepor deitzen hasi zireneko urteak bizi nituen eta giroa ere oso ona zenez primeran pasatu nuen.

**Ez duzu uste Toshack-ek Errealean jarraitu izan balu Donostian urte gehiagotan jokatu zenuela?**

Neuk ere askotan galdetu diot hau neure buruari. Bera izan zen lehen

• *"Errealak aurten ere iaz ibili zen modura arituko da. Zaila izango du UEFA postuetan sartzea"*

• *"Errealean eta Deportivon oso urte politak pasatu nituen"*

• *"Toshack-ek lehen taldera igo ninduen, konfidantza eman zidan eta harreman ona izan genuen"*



Jose Luis Padron poeta urretxuarrak *Central Hispanok* antolatutako *Imagina ezazu Euskadi* lehiaketako euskarazko poesia ataleko irabazlea izan da eta erderazko atalean accesita eskuratu du. Zorionak, Jose Luis.

*Nola aldatu zen ziurtegia.  
Leku hau ikusi beharko zenuke.  
Zu zerorrek  
harritu egingo zinateke.  
Haurrek lehergailuen kontrako motxilak  
daramatzate  
eskolarako orduan.  
Jendeak etorkizuneko gerrak antolatzen ditu.  
Gizonek begi-lujuriosoak dituzte.  
Sukaldetan  
ez da argia itzaltzen,  
gauaren zaindari emakumeak.  
Langabetuek tabernetako komunetan  
egiten dute buruaz beste.  
Salbatzaileez gainezka kaleak.  
Eta egiten duten guztia  
munduaren azkena iragartzen da.  
Ez da leku politta.  
Ez da burdinarik gabeko leihorik geratzen.  
Hitzek gainditu egiten dute poeta.  
Eta poema batek  
nire bizitza baino gutxigo balio du.  
Ei, Cladius Clei!  
tiro bat jaso dezakezu  
zure rolexarengatik,  
edota zure neskalgunarengatik,  
edota begiratu behar ez zenionari  
begirtzeagatik.  
Hegadun-inurri hiltzaileak  
esne kajetan iragartuak  
Jendeak esaten dizu "Egun ona izan".  
Errezagorik ez dago!  
Eroak besoetan ezkututzen dira  
aiztoak zorroztera,  
ilargia  
gure oinetako gastatuetan.  
Nola bizi daiteke jendea horrela?  
galdetzen didazu;  
gaur  
nik gonbidatzen zaitut.*

**PALEONTOLOGIA**

✓ Urriaren 29tik azaroaren 17ra bitartean, harri eta fosilen museoan, **Gasteizko portuko fosilen erakusketa**, monografikoa barne.

✓ Urriaren 29tik azaroaren 17ra bitartean, **fosilak denboran zehar** erakusketa Labeaga ikastetxeko aretoan.

✓ Urriaren 31tik azaroaren 3ra bitartean, **lurraren bizitza denboran zehar** erakusketa eta **anbarri buruzko monografikoa**, Kultur Etxearen ondoko lokalean.

✓ Urriaren 29tik azaroaren 3ra bitartean, **harri, fosil eta harribitxi**en IX. aretoa. Salerosketa, trukaketa, mahai zientifikoak, planetario mugikorra, urearen bila, meategia eta lehiaketak izango dira, Ederrena pilotalekuan, Zubimusu plazan eta Iparragirre plazan.



**MUSIKA**

✓ Azaroak 15ean, Urretxu-ko udalak eta Urola Garaiko buruko gaitzadunen elkarteak antolatuta, **Javier Arrillaga** kantautorearen kontzertua Pagoeta antzokian iluntzeko 20:30etan

**SANTA ZEZULGA**

✓ Azaroak 21ean, Santa Zezilia ospatzeko, **Musika Eskolako ikasleak** musika kontzertua eskainiko dute.

✓ Azaroak 22an, Santa Zezilia ospatzeko, **Musika Eskolako trikitilariak** Urretxu eta Zumarragako kaleak girotuko dituzte arratsaldeko 17:30etatik aurrera.

**ERAKUSKETAK**

✓ Azaroaren 15etik 22ra bitartean, **Koldo Cadierno** eta **Ivan Cadiernoren** pintura erakusketa, Itarte etxean.

✓ Azaroaren 4tik 14ra bitartean, **Emakunderen argazki bilduma** izango da ikusgai Itarte Etxean.

**BIONA**

**ARROZTEGIA**

Altzariak neurriira

☎ eta Faxe: 72 02 55  
Erratzu, z/g 20700 URRETXU



**ALGAR**

Estetika zentroa

Depilazioa, masaiak, azal garbiketa

Ipeñarrieta 1-1.ezk.  
URRETXU

☎ 72 02 46



Begoña Sagastizabal

☎ 72 51 90 - 72 06 76

Iparragirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA

**OSTADAK**

- ✓ Azaroaren 24an IX. Angel Etxeberria Memoriala izeneko haur ibilaldi neurtua, Zumarragatik Kizkitzara.
- ✓ Azaroaren 25etik 29ra diapositiba emanaldia
- ✓ Abenduaren 1ean, Belate inguruko Saioa mendira igo ondoren, bazkaria Eugi edo Iuritan.

**IKASTAROAK**

- ✓ Azaroaren 4an hasi eta 30 ordu iraungo duen egur gaineko polikromia ikastaroa antolatu du Harizpi elkarteak. Astelehen eta ostegunetan Urretxuko Kultur Etxean izango da. Matrikula 2.000 pezetakoa da, materiala kanpo eta toki mugatuak izango dira.
- ✓ Azaroaren 8an hasita, Lurra dantza taldeak arinarin eta fandango ikastaroa emango du doan. Ostiralero 22:00etan, Gauri ikastetxean izango da.

**HITZALDIAK**

- ✓ Azaroaren 26an Aldiri K.E.k antolatuta, Galindo kasuari buruzko hitzaldia emango du Txus Congil, Adore taldeko kideak. Arratsaldeko 19:30etan izango da Kultur Etxean.
- ✓ Azaroko astelehen eta ostegunetan Agia elkarteak antolatutako hitzaldi zikloa izango da arratsaldeko 19:45etatik aurrera Kultur Etxean. Euskal mitologia, Egiptoko kulturaren eguzkiak duen sinbolismoa, barne poza, zentuz psikikoak... aztertuko dira hitzaldi hauetan.

- ✓ Azaroan, Hits & Fits Bandaren hitzaldi zikloa egongo da.

**SAN MARTIN**

- ✓ San Martin jaiak Aginagan. Bertsolariak, trikitilariak, eta bestelakorik izango da bertan.

**SSDA**

- ✓ Azaroaren 26tik 29ra bitartean, sidaren aurkako astea egingo da.

Lurra dantza taldeak euskal jantziak egiteko interesa duenari, argazkietan jasota dituen garai bateko emakume eta gizonezko euskal jantziak erakusteko prest dagoela adierazi nahi du. Interesa duenak Lurraren egoitzara joan.



Etxean doan jaso nahi baduzu edota  
Iragarkiren bat egin nahi baduzu  
Deitu 72 57 75 telefono zenbakira



Joseba zuk OTAMOTZ-en zoriondu zenidanez, oraingoan neuk zu zorionduko dizut. **Zorionak** lehengusuaren partetik eta baita zure koadrilako guztien partetik ere.



Mila azarora heldu da eta horrekin batera zure urtebetetze eguna. Egun ona pasa ezazula opa dizugu etxekoek. **ZORIONAK eta urte askotarako.**



Hemen ikusten duzuen gizontxoak **Enrike Mendiola** da, Zintzo-Mintzoko bazkiderik gazteena eta 3 urte beteko ditu hilaren 27an. **Zorionak** amona Geno eta osaba Karlosen partetik.



Hona hemen, **OTAMOTZ** geure etxeetara iritsi dadin arduratzen den mutil prestua. Horrenbesteko lana egiten duena ezin ba ahaztu. **ZORIONAK, Aitor**



**Marisa** aurten zure urtebetetze eguna berezia izango denaren zalantzarik ez dugu. **Zorionak** eta muxu handi bat amatxo. Ah bide batez, zorionak aitaxo berriari.

# AUTO ASEGURUA

- Segurutik zuregandik hurbilago gaude, zu hobeto zerbitzatzeko
- Segurutik noranahi joanda ere, Laguntzarako Telefonoa izango duzu
- Segurutik Bidaietarako Laguntzan Estaldurarik Hoberenak izango dituzu
- Segurutik Peritazioa Azkar baino azkarragoa izango da
- Segurutik zure Hobariak kontuan hartuko ditugu
- Segurutik gure prezioen truke ez duzu estaldura hoberik aurkituko



Kalebarren, 1. Tel: 72 50 22  
ZUMARRAGA



**SEGUROS LAGUN ARO**  
**ASEGURUAK**